

F. BEREZIKOETXE PARKEA

AUZOAK SORTZEN DITUZTEN EREMUAK

Emakume auzokideen esanetan, leku hau betidanik izan da oso berezia. Lehen, Berezikoetxe izeneko baserria zegoen hemen, eta plazari bertatik datorkio izena. Gaur egun, auzoko eguneroko bizimodua garatzen da plazan.

Orain dela urte batzuk, leku hau basatza zen, futbol-zelaia. Urteen joan-etorrian, auzokide berriek apurka-apurka eraldatu eta leku atsegina sortu zuten. Lehenengo eta behin, basatza estali zuen zementua iritsi zen; gero, zabuak; eta, azkenik, eguzkitik nahiz euritik babesteko estalkia... Batzuek arrainontzia esaten diote leku horri. Harrezkero, plaza hau auzoko eguzkitsua da, eta Galdakao osoko biztanleak hona etortzen dira leku lasai eta erosoaz goatzera.

Bazkariak, urtebetetzeak edo jaiak. Ospatzeko eta auzokideak elkartzeko lekua da. Urtero, ekainean, Bitsi Elkartek Elkarbizitzaren Jaia antolatzen du, orain dela hamarkada luze Extremaduratik heldu zirenekin elkartzeko asmoz. Egun horietan, auzoan honako hauxe da nagusi: musika, paellak, kalejirak, herri-bingoak, ikuskizunak eta barreak. Ez dira jaiak bakarrik: nortasunaren adierazgarri ere badira, elkarbizitza elkarrekin bizi izanda ospatzen dela esateko modua, alegia.

Plaza hau San Inazio auzokoa da. Auzoa oso antzinakoa da, eta biztanle ugari bizi dira bertan. Hemen, zenbait belaunaldi, familia iritsi berriak eta balkoietatik hona begira bizitza osoa daraman jendea bizi dira elkarrekin. Etxebizitzak merkexegoak dira edo ziren, behintzat. Hori dela eta, jende gazte asko bertara bizitzera joan denez, kaleak bizitasunez beteta daude berriro. Auzo solidario, lasai eta argitsua da, eta erdialdetik urrun dago, baina beharrezkoa den guztitik hurbil: parkeak, dendak, berdeguneak, adinekoentzako gunek eta haurrentzako ludoteka.

Berezikoetxe parkea ondo ulertutako hiri-bizimoduaren adibidea da: funtzionala, irisgarria eta arimaduna. Bertako umeen parke estaliari esker, neska-mutikoek badute jolasterik eguraldia edonolakoa dela ere. Bertako iturriak eta eserlekuak, gainera, ezin egokiagoak dira atseden hartzeko, hitz egiteko edo, besterik gabe, eguzkiaz goatzeko. Inguruan terrazak dituzten taberneak musikaz eta barrez betetzen dituzte arratsaldeak. Karmele Gorroño eta Irene Irureta (@irrimarra) artisten horma-irudi koloretsu handiak, ordea,

AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK.

ZAINKETA KOMUNITARIOEN IBILALDIA

ukitu artistikoa ematen dionez, auzoa edertzen du, eta izaera ematen dio lekuari.

Berezikoetxen, adin, doinu eta bizi-erritmo guztiak nahasten dira. Behar besteko lekua dago, haurrak jolasteko, maskotekin osteratxoak egiteko, adinekoak elkartzeko eta auzokoak batzartzeko. Plazak hitz egingo balu, “bizitza, alaitasuna eta etorkizuna” esango luke, horixe bera islatzen duelako egunero: erkidego alaia. Bertan, hain zuzen ere, neska-mutikoek askatasunez egiten dute korrika, autorik gabe, barreka eta ingurune seguru zein atseginean.

Emakume auzokideek argi eta garbi dute: “txiki geratu da”, harro-harro diotenez. Izan ere, eremu publikoa bizitasunez beteta dagoenean, bere eginkizuna betetzen duela adierazi nahi du: biltzea, zaintzea eta auzoari zentzua ematea.

Bazenekien...

Galdakaon josteko tailerra egon zela, bere izena “La Jostura” zela eta emakumeek baino ez zutela bertan lan egiten? Urteetan eta urteetan, harrotasunez josi zuten saltegi handientzat, eta oso ezagunak ziren, haien lanaren kalitatea bikaina zelako. Haien izena hitz-joko txikiaren ondorioz sortu zen: gaztelaniako “La Costura” erregistratuta zegoenez, “La Jostura” aukeratu zuten, euskarako “jostuna” hitzaren oroigarri ere bazelako. Pandemiaren ondoren, tailerra itxi bazuten ere, bere oroimenak bizirik dirau oraindik, emakumeen lanaren, talentuaren eta duintasunaren erakusgarri.